

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Udal-lokalak erabiltzeagatiko zenbait tasaren ezarpena behin betiko onartzea**

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduera administratiboak egiteagatiko tasa (XXIII. epigrafea: Alondegiko tasa, XXIV. epigrafea: Lanbide Heziketako eraikina, XXV. epigrafea: «Arbieto» futbol-zelaia, XXVI. epigrafea: Udal-bolatokia eta XXVII. epigrafea: Udal-pilotalekua) arautzen duen zerga-ordenantzaren ezarpena behin-behinean onartzeko erabakia jendaurrean ikusgai jartzeko epea igarotakoan erreklamaziorik eta iradokizunik egon ez denez, behin betiko onartzen da Udalbatzak 2020ko uztailaren 29an egindako ohiko bileran hartutako erabakiaren bidez.

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 18ko 9/2005 Foru Arauan xedatutakoa betetzeko asmoz, ezarpen hori argitaratzen da:

**a) XXIII. epigrafea. — Alondegiko tasa****a.1. Alondegia (astelehenetik ostiralera)**

	Jende-kopurua	Orduko prezioa (€)	Egun erdia (€)	Egun osoa (€)
Ikasgelak	23 lagun gehienez	18	55	90
Ekitaldi-aretoa	87 lagun	28	73	115

**a.2. Alondegia (larunbat eta igandeetan)**

	Jende-kopurua	Orduko prezioa (€)	Egun erdia (€)	Egun osoa (€)
Ikasgelak	23 lagun gehienez	55	92	127
Ekitaldi-aretoa	87 lagun	65	110	152

**a.3. Alondegia eta LH-ko eraikina**

Iraupen luzeagoko jardueretarako eremuak erabiltzeagatiko kanona:

1. Prestakuntza-ekintzetarako eremuen erabilera pribatiboa: 100 euro eremua benetan erabilitako hileko.
2. Prestakuntza-ekintzetarako eremuen erabilera partekatua: 80 euro eremua benetan erabilitako hileko.
3. Urduñako Udalak abian jarritako plan estrategikoetan (Hizkuntza Normalkuntzetarako Plana, Berdintasunerako Plana, Kultura Plana...) zehazten diren irizpideekin bat datozen prestakuntza-ekintzetarako eremuen erabilera pribatiboa: 50 euro eremua benetan erabilitako hileko.
4. Urduñako Udalak abian jarritako plan estrategikoetan (Hizkuntza Normalkuntzetarako Plana, Berdintasunerako Plana, Kultura Plana...) zehazten diren irizpideekin bat datozen prestakuntza-ekintzetarako eremuen erabilera partekatua: 30 euro eremua benetan erabilitako hileko.

\*Urduñako Kale Nagusia 10eko eraikineko erdisotoan dauden udal-kolaketan, enpresen haztegiak eta prestakuntza-ikasgela daude kokatuta, eta Urduñederra Urduña Ederra, S.L., sozietate publikoak enpresen haztegiako jardunbiderako oinarrietan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

**a.4. Alondegia**

Ekipamenduak alokatzeagatiko prezioa (kainoi eramangarria, proiektorea, ordenagailu eramangarria, soinu-ekipamendua,...).

Orduko prezioa (€)	Egun erdiko prezioa (€)	Egun osoko prezioa (€)
6,5	20	45

**b) XXIV. epigrafea. — Lanbide heziketako eraikina**

1. Alokairuaren prezioa: 100 euro hileko.
2. Urduñako Udalak abian jarritako plan estrategikoetan (Hizkuntza Normalkuntzarako Plana, Berdintasunerako Plana, Kultura Plana,...) zehazten diren irizpideekin bat datozen prestakuntza-ekintzetarako alokairuaren prezioa: 50 euro hileko.

**c) XXV. epigrafea. — «Arbieto» futbol-zelaia**

1. Zelaia argi naturalaz alokatzeagatiko prezioa: 55 euro orduko.
2. Zelaia argi artifizialaz alokatzeagatiko prezioa: 75 euro orduko.
3. Zelaia argi naturalaz alokatzeagatiko prezioa (4 orduz): 175 euro.
4. Zelaia argi artifizialaz alokatzeagatiko prezioa (4 orduz): 250 euro.

**d) XXVI. epigrafea. — Udal-bolatokia**

1. Argi naturalaz alokatzeagatiko prezioa: 55 euro orduko.
2. Argi artifizialaz alokatzeagatiko prezioa: 75 euro orduko.
3. Argi naturalaz alokatzeagatiko prezioa (4 orduz): 90 euro.
4. Argi artifizialaz alokatzeagatiko prezioa (4 orduz): 125 euro.

**e) XXVII. epigrafea. — Udal-pilotalekua**

1. Lehenengo solairuko erabilera anitzeko aretoa: 5 euro orduko.
2. Tasak ezartzeko arauak:
  - Urduñako udalerriko kultura eta kirol arloko taldeek ez dituzte tarifa hauek ordaindu beharko.

Ordenantza honen ezarpena bere testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen denetik sartuko da indarrean, eta berariaz aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte egongo da indarrean.

Urduñan, 2020ko irailaren 16an.— Alkatea, Itziar Biguri Ugarte